

KOSTUEN EGITURA

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak kostuen egitura esaten zaio. Kostuen egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzakete:

- **Kostu finkoak:** berdin mantentzen direnak.
- **Kostu aldakorrak:** ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak dira .
- **Eskala ekonomiak:** produzitutako unitateen kopurua handitzean, kostuen murrizketa lortzen denean.
- **Zabalkunde edo hedadura ekonomikoak:** baliabide berdinak erabili daitezke produktu bat baino gehiago egiteko.

Gure proiektuaren kostuen egitura:

Gure kostuak minimizatzen saiatuko gara.

- Kostu finkoak: Oraingoan, kostu finko bakarra dugu, webgunearen hostinga. Bulego moduan bazkide baten logela erabiliko dugu, baina enpresa handitzen bada, bulegoa lekuz aldatu beharko genuke eta beste kostu finko bat izango genuke. Gure ekipo informatikoa erabiliko dugu
- Kostu aldakorrak: Ekintzak antolatzeko materiala, adibidez, orriak, margoak etab.